

**JARDUEREN TXOSTENA  
2012****AURKIBIDEA**

- 1) SARRERA
- 2) EGINDAKO JARDUERA
  - a) Espedienteak
    - (1) Izapidetutakoa
    - (2) Ebatzitakoak
    - (3) Ebazteko zain
  - b) Berraztertze errekurtsoak
  - c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoak
  - d) Bilerak



## 1) SARRERA

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen arau-markoa ezartzen dute, batetik, ekainaren 11 14/1998 Legeak - Euskadiko Kirolarenak (XII. titulua; I. kapitulua) - eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak (Kirol Justiziako Euskal Batzordea -aurrerantzean KJEB-sortu eta arautzen duenak).

Euskadiko Autonomia Erkidegoko kirol-justiziaren arloko administrazio-organo nagusia da. Erabateko independentziaz jokatzeko du. Hierarkikoki, ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio-organoren menpe. Organikoki, berriz, Eusko Jaurlaritzan kirol-eskumenak dituen sailari dago atxikita; egun, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari.

Batzordeak azken administrazio-auzialdiko erabakiak hartzen ditu bere eskumeneko kirol-gaiei buruz. 14/1998 Legearen 138. artikulua arabera, honako hauek jakin eta ebatzi behar ditu:

- a) )Kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak.
- b) Kirol-federazioetako hauteskunde-batzarren erabakien aurka jarritako errekursoak.
- c) Lehiaketa ofizialak bideratu, kalifikatu eta baimentzeari eta lizentziak tramitatu eta emateari dagozkien federazio-erabakien aurka jarritako errekurso guztiak.
- d) Administrazio-eginkizunak betetzean federazioen artean sor litezkeen auziak
- e) Batzordeak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz, gorago aipatutako gaien artetik aztertu beharreko ikusten dituenak.


Barne-jarduerako araubidea dela eta, Batzordeko karguak urtero txandakatzeko 2012ko otsailaren 13an hartutako erabakia aplikatuz, lehendakaritza Mirari Erdaideren eskutik José Luis Iparragirrerenera pasatu zen; lehendakariordetza, berriz, José Luis Iparragirrerenetik Jose Luis Aguirrerenera.




## 2) EGINDAKO JARDUERA

## a) Espedienteak

2012an, 69 espediente sartu dira Batzordean; hau da, aurreko urtean baino % 102,94 gehiago, urte horretan 34 espediente jaso baitziren.




Modalitateka, futbola nabarmentzen da: 12 espediente (denak eskola-lehiaketei buruzkoak). Haren atzetik, txirrindularitza dago: 10 espediente, baina denak dira pertsona berak arazo beraren inguruan jarritako errekurtsioak. Haren atzetik, saskibaloia eta eskubaloia: 6na espediente.






Aurreko urteko memoriako errekurtsioak sailkatzen jarraituta, honako gaitz multzo hauek berezi daitezke:

1. Federazio-lehiaketetako gorabeherak: 15<sup>1</sup>
2. Eskola-lehiaketetako gorabeherak: 16
3. Dopina: 2
4. Hauteskundeak: 36
5. Federazioen funtzioekin loturiko gatazkak: 0



- Incidencias en competiciones federativas
- Incidencias en competiciones escolares
- Dopaje
- Procesos electorales

Ondorengo grafiko honetan, datuak aurreko urtekoekin parekatzen dira:



<sup>1</sup> Bederatzi espediente arazo berdinari buruzkoak dira: adinagatik lehiaketa jakin batean parte-hartzea ukatzeagatik. Parte hartzen uzten ez zaion proba bakoitzeko errekurtsio bat jartzen da.




Grafiko bietan argi eta garbi ikusten denez, kirol-federazioetako hauteskunde-prozesuekin zerikusia duten errekurtsioek pisu handia daukate KJEBk 2012an izan zuen jardueran. Izan ere, jasotako errekurtsioen %52,17 dira.

Errekurtsio horietako batzuk, hain zuzen ere 20, oraindik ebatzteke daude: 2013ko lehenengo bileretan ebatziko dira.

Ildo beretik, 2012an, 2011ko amaierara aldera izapidetutako hamaika espediente ebatzi ziren.

Guztira, aurtan 60 espediente ebatzi dira, berraztertzeko errekurtsioak kontuan hartu gabe. Ebazpenak nolakoak izan diren azaltzen du ondorengo koadro honek:



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenez, sexu-aldagaia sistematikoki jaso behar da estatistika eta datu-bilketa guztietan. Bada, ikuspegi horretatik aztertzen baditugu ebatzitako espedienteak, ikusiko dugu nortzuk jarri dituzten KJEBk ebatzitako 30 errekurtsioak:

- \* Pertsona juridikoak: 24 (% 40)
- \* Pertsona fisikoak: 36 (% 60)
  - Gizonezkoak: 32
  - Emakumeak: 4



## b) Berraztertze errekurtsoak

Berraztertze bost errekurtso jaso dira. Horietako bat, 2011ko espediente bati buruzkoa; gainerakoak, 2012koak. Espediente horien gainean Batzordeak hartutako erabakiak berretsi, eta errekurtso horietatik bi ez dira onartu; bi baietsi egin dira, eta beste bi, berriz, ezetsi.

Hauteskunde-prozesu bati buruzko espediente batean, Batzordeko hauteskunde-batzordeak zalantzak mahaigaineratu ditu Batzordeak horri buruz hartutako erabakiaren gainean; hori dela eta, hasierako erabakia argitzeko ebazpena eman da.

## c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoak

Batzordeko bi erabaki administrazioarekiko auzibidean errekurritu dituzte:

- 2011ko irailaren 30eko ebazpen bat, dopatzearen inguruko diziplina-zehapen bat oso-osorik berresten duena (24/2011 esp.).
- 2012ko otsailaren 13ko ebazpen bat, berresten duena lehiaketako araudia ez betetzearen proba batetik kanpo uzteko diziplina-zehapena (26/2011 esp.).

Bestalde, aurreko urteetan jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen gaineko epai batzuk jaso dira:

- 2012ko urtarrilaren 9ko 9/2012 epaia, Administrazioarekiko Auzietako Bilboko 4. Epaitegiarena.  
Errekurritutako egintza: 7/2010 espedientean, KJEBk 2010eko martxoaren 23an emandako ebazpena.  
Epaizta: administrazioarekiko auzi-errekurtsoa erabat ezestea. Epaia ondo: ez dira betetzen alegatutako motiboari eusteko gutxienezko betekizunak; izan ere, demandatutako administrazioak dagoeneko zehapena jarri du, mailarik txikienean.
- 2012ko azaroaren 8ko 729/2012 epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salako 3. Sekzioarena. 1711/2009 apelazio-errekurtsoa  
Errekurritutako egintza: Administrazioarekiko 88/2008 auzi-errekurtsoan, Administrazio-azietako Donostiako 2. Epaitegiak 2009ko irailaren 3an emandako epaia (KJEBk 2007/10/20ko Ebazpenaren kontra jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezesten da, zeina Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-batzordearen erabakien kontra jarri baitzen).  
Epaizta: apelatutako epaia berrestea.



## d) Bilerak

Batzordea hamabost aldiz elkartu zen 2012n. Ondoko taulan ikus daiteke bilerok zein egunetan egin ziren eta horietan zein espediente ebatzi ziren:

BILERA	ESPEDIENTEAK
2012/1/16	24(2011)
2012/2/13	25, 26, 27, 28, 31, 32, 34 (2011)
2012/2/27	Analisia kontsulta
2012/3/15	29 (2011), 4 (2012)
2012/4/2	30 eta 33 (2011), 2 eta 3 (2012)
2012/4/23	5, 6, 7 eta 9 (2012)
2012/5/18	1, 10, 13, 15, 16 eta 18 (2012).
2012/6/18	8, 11, 19 eta 20 (2012) 3/2011 eta 7/2012 berraztertze errek.
2012/7/20	17, 26, 27, 28 eta 36 (2012) 9/2012 berraztertze errek.
2012/9/10	14, 21, 22, 23, 25 (2012)
2012/10/3	12, 29, 30, 32, 33, 34, 35, 37, 38, 39 eta 40 (2012) 6/2012 berraztertze errek.
2012/10/11	24 (2012)
2012/10/22	42 (2012) Argitzeko errekurtsu pil. 32, 33, 34, 35, 39 eta 40 (2012). Berrazt. errek. pil. 26, 27 eta 28 (2012)
2012/12/14	31, 41, 46 eta 59 (2012)
2012/12/28	43, 44, 45, 49 eta 51 (2012)